

«Maiz atera naiz konfort-zonatik baina birusak pausatu egin nau»

Eskerne Falcón Aranceta
Bada ordua
itsasoratzeko

CIUDADANOS
BEGOÑA DEL TESO



Ama du margolari eta Navascues estudiantik atera berria, kairako bidean zela harrapatu genuen pasa ostegunean New York estatuko Binghamton herrian eta Singapurren bizi izandako Eskerne, Discover San Sebastian enpresaren sortzailea. Paco Bueno eta Martinez benetako tabernak urrun samar zirelarik, beste 'autentiko' batean izan ginen berriketan, Kiskurran.

– **Zenbat?**
– Zenbat zer?
– **Aldiz. Zenbat aldiz atera zara, atera zaituzte, zure konfort-zonatik. Horixe nahi dut nik jakin.**
– Bizpahiru.
– **Zenbatu duzu. Orain, kontatuta.**

– San Vicente elizan hartu nuen bataioa. Horrek sakon markatu ninduen...

– **Zer zentzutan?**
– Eskerne izena jarri zidaten eta kokkera-donostiarraren pozo gozoa zainetan barrena sartu. Horrexegatik, igual, maite dut hainbeste horren hurbil dagoen Martinez taberna. Edo Trinitate plazako Txuleta. Hala ere, ezer ez dut Santa Maria eta San Vicenteren artean den Ganbararen kontra. Aldeko eta zale naiz. Oso. Artzain Onaren bidean, baina Parte Zaharreko karrika nagusian den Paco Buenoren aurka ere ez dut ezer kontra. Ezta pentsatu ere. Gabardinarekin prestatutako bertako ganbarik gabe, nola bizi?

– **Ados. Bat nator zurekin. Zeharo. Baina momentuz, zure/gure konfort-zonan sentitzen zaitut gozo eta ez kanpo, ez urrun.**

– Segituan aterako naiz. Ibaeta auzoko Ibai ikastolan eta Santa Teresa ikastetxean eskolaratu nintzen. Bukatu orduko, Enpresen Administraritzeta eta Zuzendaritza ikastea erabaki nuen, irteera anitzeko ikasketak zirelakoan...

– **Erabaki zentzuduna dirudi.**
– Ez balitz ingelesa jakin barik New Yorken ikastea erabaki nuelako.

– **Bejoindezula.**
– Horixe izan zen konfort-zonatik atera nintzen estreinako unea. Ez oso-osorik, ordea.

– **Zer esan nahi du 'ez oso-osorik' horrek?**

– Ahizpa zen han bizitzen. Beraz, konfort eta segurantz pixka bat ba nuen... artean. Hala ere...

– **Zer?**
– Ikragarria izan zen bertan neganatu nuen eskarmentua. Zentzu eta maila guztietan. Garai hartan hemen, Donostian, ez zen ez arrazen, ez jan-gauzen, ez usainen aniztasuna. Txinako sukaldaritzatik ezagutzen genuen kontu bakarra udaberriko 'rollito' horiek ziren. Derrepentean, han, hain txikia zen Binghamtonen, topo egin nuen Txinatik aspaldian etorriak izan arren, bertako kozinatze moduari eusten zioten amonen platerekin. Han ezagutu nituen espeziekin, sekula



Katamaranean sartu aurretik, ganbak eta zerbetza, Eskerne, kaian. **BORJA LUNA**

«Pairatu dugun sarraskitik taberna jatorrak, benetakoak, autentikoak izango dira salbu. Besteak, inolaz ere»

la nabaritu ez nituen usainekin, sekula ez ikusitako larruazaleko koloreekin eta sekula ez entzundako hizkuntzen doinuekin. Nola edo hala, esperientzia itzel horrek bidea ireki zidan gerroxeago aurrera eramango nuen nere Discover San Sebastian enpresa irudikatzen zena.

– **Etxeratu zinen eta martxan ja-**

rri aipaturiko Discover San Sebastian, etortzen hasiak ziren bidaiariarentzako zerbitzura beti.

– Gogorak bezain graziaz beterikoak izan ziren hastapenak. Nire zerbitzuak eskaintzen nizkien holetako jabeek eta bereiek harrean nahi ninduten, goi mailako atezain gisa. Edo komisioak eskatzen zizkidaten lortzen nituen bezeroen ordainean. Kuriosoak izan ziren garai horiek. Baina arrakasta lortu nuen. Nirekin zetozen turistak nire gogoko taberna eta lekuetara eramaten nituen eta pintxo bat eta ardoa eskuan, hemengo ohiturez, Historiaz eta istorioez ibiltzen ginela... kuxkuxean. Josemaritarrak eta kokkerok bagina bezala.

– **Boteprontoan, baina, Singapur aldera joango zinela erabaki zenuen.**

– Horren boteprontoan ez baina bai, txineraz ikasi nahi nuen. Hor bai ez nuela ez ahizparik, ez euskarririk, ez heltzekorik. Han nengoela, nik uste/espero/beharrua ez nuela bilatzen konturatu eta bueltatu nintzen.

– **Sakonegia ote, konfort-zonatik ateratzerakoan sumatu zenuen amidegia?**

– Ez, ez zen hori. Nik uste, kulturalki ulertu ezinezko egoera eta gizarte batean aurkitu nintzela eta bueltarako bidea hartu nuen.

– **Eta bere burua turismoari eskaini zion hiri hau birusak setiatu zuen. Eta denok maite ditugun tabernak (eta maite ez ditugunak ere) itxi ziren. Eta bidaiariak beren etxera bueltatu ziren. Eta zu non? Konfort-zonatik kanpo edo barruan?**

– Beren negoziotetan, gorputzetan eta familietan birusaren eraso basa nozitu duten guztiei zor dieidan, diegu, errespetu osoa gordez, esan behar dut niri Covid-19ak ezinbestekoa nuen etanaldia eskaini didala. Pausatu dut nire burua. Ekin diot gustuko gauzak egiteari: pintura, yoga... Duela pare bat aste Ciudad de San Sebastian barkuaren marketing (edo) ardura hartu dut. Ilusio osoz.

– **Zer asmotan? Bisitariak beren konfort-zonatik aterako dituen bihurrikieretan ibiliko zara?**

– Zegoen goien gradura bueltatu behar dugu berriro hiria. Baina ez bakarrik kanpokoentzat. Guretzat ere. Eta itsasoa zeharkatu behar dugu baleen bila, zeharkatuko dugu, gure arbasoek nola.

TUS MANOS pueden salvar vidas

REASIGNACIÓN LABORAL/RECALIFICACIÓN

SEGURIDAD VIAL

PREVENCIÓN EN LA INFANCIA

CURSOS A MEDIDA

PRIMEROS AUXILIOS

KIDIA DEIA

DESMARILLADORA SEMI-AUTOMÁTICA

MÓDULOS SALUDABLES

SOCORRISMO ACUÁTICO

Ven, te enseñamos

DYA 943
GIPUZKOA 46 46 22

www.DYAgipuzkoa.com